

## **Espainiar estatuaren mendekuzko espetxe politikaren aurrean, Arrasateko Sorturen oharra**

2005. urtean Aratz Gomezek bere espetxe zigorra Estatu frantsesean betetzeko eskaera egin zion Estatu espainiarrari, baina 12 urte pasatu behar izan dira eta tartean beste eskaera bat ere egin behar izan du, azkenean lekualdaketa hau emateko. Berri ona dela ezin ukatu, berak nahi bezala eta bere eskubideetan oinarrituta, bizilekutik gertuagoa egongo delako. Baina zertara ari da jolasten Espainiar estatua? Arrasateko Sorturen ustez, mendekuzko espetxe politikarekin, modurik krudelean, ahalik eta kalte gehien sortzen saiatzen ari da. Bestela nola ulertu dezakegu 12 urtetan zehar Aratzen nahi eta eskubideak sistematikoki ukatu ostean, zigorra betetzeko hilabete gutxi geratzen zaizkionean eskaera onartzea? Unai Parotekin ere krudelkeriak ez du etenik. Egoera berdinean egonik, eskaera berdinarekin aurrean ezezko erantzuna jaso zuen. Nola ulertu behar dugu Unaiarekin egiten ari direna?

Herrikidetzat ditugun bi kasuak ez dira bakarrak, ez dira isolatuak, ez dira kasualitatez gertatu direnak. Urtez luzez, euskal preso politikoen eta beraien senideen eskubideak urratuz, ahalik eta kalte gehien sortzea helburu duen espetxe politika izan du guda tresna Espainiar Estatuak, eta Euskal Herriko gatazka gainditzeko eman diren pausuei entzungor eginez, bide berdinetik jarraitzeko asmo irmoa erakusten du.

Honen aurrean, Sortutik, gure herriaren agenda politikoan, presoek gaiak, bere korapilo guztiekin, lehentasunezko tokia eta lanketa beharrezko duela gogorarazi nahiko genuke. Sekula baino gehiago, herritar eta herri eragileengan dago konponbidearen norabidean ekarpena egiteko aukera: ohiko mobilizazioetan parte hartuz presoek eta beraien senideei babesa eskainiz; gaiari buruz etxean, koadrilan, ikastetxean, lantokian, kalean, edota sarean hitz eginez ... Arrasatearrok ere guzti honetan zeresana badaukagulako, ezetz esan diezaiozun mendekuzko espetxe politikari!

Arrasateko Sortu